

AMEZAGA, AITOR

ESKUBIDE TXIKIKO ELKARGOAREN KIDEA



Bilbon jaioa, Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioan hasi zituen ikasketak eta goi-mailakoak aldiz Donostiako kontserbatorioan amaitu zituen. Arthur Bernsteinekin osatu zuenformazioa L'aula de música moderna y Jazz delakoan eta Guildhall School Music of London ospetsuaren Certificate of Keyboards aitorpena lortu zuen. 1973tik 80 disko baino gehiagotan moldaketari eta grabazio-musikari gisa kolaboratu du, besteak beste,

Bratislavako Orkestra Sinfonikoarekin edo Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin. Zinemarako eta telebistarako lan egin du, eta gaur egun bere sormen-jarduera pedagogikoarekin tartekatzen du, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian edo Udako Euskal Unibertsitatean (EHU) eskolak emanez.